

Kooperatibismo agroekologikoaren sistema baterako ikaspenak

Laburpena: Elikadura eta kontsumo jasangarria lantzen dabilen Agrosareako bost eragile kontsumo jasangarriaren arloaz gain, lurralde- eta gizarte-eraldaketako beste aspektu batzuetan aritzeko potentziala aztertzen ari dira. Horretarako, Kooperatibismo Agroekologikorako Ekosistema (KAE) sortzea proposatzen da, batik bat, elikadura agroekologikoaren eskala handitzeko.

Hitz-gakoak: Interkooperazioa, Elikadura-Burujabetza, Agroekologia, Tokiko Garapena, Kooperatibismoa

Abstract: Five participants from Agrosarea, working on sustainable nutrition and consumption, are studying their potential to trigger territorial and social transformation. The proposal is to create an Ecosystem for Agroecological Cooperativism in order to increase the scales of agroecological nutrition structures.

Key words: Co-operation; Food Sovereignty; Agroecology; Local Development; Co-operativism



Leire Udabe eta Amaia Oleaga

Olatukoop sareko kideak. Biologoa eta ekonomialaria. KoopFabrika programako dinamizatzaileak

Jasotze data: 2018-10-31

Onartze data: 2018-12-10

Artikulu honen abiapuntua 2017an martxan jarri zen saretze- eta interkooperazio-proiektu bat da: Agrosarea. Bertan, era egonkorrean, elikadura eta kontsumo jasangarria lantzen dabilen bost eragile ari dira parte hartzen: Lakari Kooperatiba, Bidazi Elkarte, Elikaguneko Artxara Kooperatiba, Labore Oarso elkarte eta Labore Txingudi elkarte. Eragile horiek, Talaios kooperatibako kanpoinamizazioaren laguntzaz, proiektuen barne-beharrak eta kanpora begirako lurralde- eta gizarte-eraldaketan aritzeko potentziala aztertzen ari dira.

Egoeraren argazkia

Sareko kideak proiektuak kontsolidatu eta lurraldean eragiteko bokazioak batu zituen, KoopFabrikaren¹ eta Olatukoopen² inguruko Ekonomia Sozial Eraldatzaileko eragile aktibo gisa.

Kooperatibismoa eta haren egiteko moduak oso presente dituen taldea izanik, behar kolektiboak asetzeko ikuspuntua hartu zuen. Lehen behaketa-fasean, proiektu bakoitzak barne-mailan zituen zaugarritasun eta korapiloak identifikatu ziren.

Taldearen funtzionamenduari, informazioaren partekatzeari, erosteko kolektiboak egiteko modu ezberdinei eta eguneroko kasuistikari loturiko jardueraz gain, prozesuan dimentsio estrategikoago bati heltzeko beharra ere azaleratu zen. Izan ere, Agrosareko kideek azken kontsumitzaile eta ekoizleen

1 KoopFabrika programa ekintzailetza sozial eta kooperatiboa sustatzeko programa da, bertako metodologiaren parte da ekintzailetza-prozesuetan saretzea txertatzea, besteak beste.

2 Olatukoop sareko Ekonomia Sozial Eraldatzaileko sustatzeko eta interkooperaziorako sareko da

arteko zubi-lana egiten dute, harreman merkantilista soiletatik kanpoko subjektu gisa.

Alde batetik, ekoizleekin zuzeneko harremana sortzeko Euskal Herriko lehen sektorea osatzen duten pertsonen baldintzen eta beharren oso kontziente izatera eraman ditu sareko kideak. Elikadura-burujabetza sustatu eta tokiko ekoizleei sostengua emateko tresna gisa berretsi ditu. Horrez gain, jarduera honetako eta sektoreko zenbait korapilori aurre egin behar diete eguneroko: zenbait ekoizlerentzako banaketa-zailtasun gaindiezinak, zenbait produkturen eskasia, eskariari guztiz aurre egiteko produktuak eskuratzeko zailtasuna...

Bestetik, azken kontsumitzaileekin dagoen eguneroko harreman estuak elikadura- eta kontsumo-ohituren inguruko informazio asko ematen du, baita pedagogia- eta politizazio-lana egiteko espazio paregabea eskaini ere. Egunerokoan, ordea, jarduerak pedagogiarako eta lurralde-estrategia konpartitu bat garatzeko denbora gutxi uzten du. Hori dela-eta, sarearen funtzioa bera birpentsatzen hasi zen, barnera begira baino gehiago, bere burua testuinguru zabalago baten katebegi estrategiko gisa. Izan ere, salmenta-jarduerak ekoizpen- eta kontsumo-aldeetara zabaltzeko indarra egin dezake.

Une honetan, barne-mailako datuen azterketan murgilduta dago sareko kideak. Besteak beste, bertan ekoizteko aukera izan arren, kanpotik edo banatzaileen bitartez ekartzen diren produktuen eta haien fakturazio-bolumena aztertzen ari da. Eskari bermatu bat izanda, jarduera ekonomiko hau lurraldera ekartzeko aukerei ateak zabaltzeko nahi dizkie Agrosareak. Horretarako, ekoizle antolatuekin eta tokiko

garapenean lanean ari diren instituzio publiko nahiz komunitarioekin lan egiteko informazioa biltzeko prozesuan murgilduta daude.

Ibilbide naturala dirudien arren, prozesu hau ez zen inoiz gertatuko artifizialki mahai baten bueltan jarri eta katalizatu izan ez balitz.

Kooperatibismo Agroekologikoaren Ekosistema (KAE)




Agrosareak eskuartean duen potentzialaz ohartzearekin bat, olatu eraldatzaile honi segida eta sakonera emateko ideia izan daitekeenari izena jartzera ausartu gara: Kooperatibismo Agroekologikoaren Ekosistema gisa karakterizatu dugu (aurrerantzean KAE). Kontzeptu- edo karakterizazio-aldaketa honek Elikaduraren balio-katea osatzen duten elementuak (1. irudia) eskema bakar batean ulertzea erraztuko luke.

Balio-kate horietako bakoitzeko unitate ekonomiko PKAA³ deitu diegu. Sarea osatzen duten PKAA nodo hauek lurralde-garapenerako subjektu izateko jauzia emandako unitateak lirateke. PKAA unitate edo nodo bakoitzak balio-katearen arlo bakoitzari (ekoizpenari, banaketari, kontsumoari, sukaldeari, bitarteko ondasun/zerbitzuei edota haien arteko konbinazioari buruz ari gara balio-kateak aipatzean) lotutako behar sozialei erantzungo lieke, oinarritzko helburu sozialak partekatuz:

- Gizarte-beharrei erantzungo dieten proiektuak: elikadura-burujabetza, lanaren subiranotasuna, elikadura osasungarria, agroekologia...
- Autogestioan eta demokrazia ekonomikoan oinarrituko diren proiektuak: parte-hartze komunitarioko elkarteak, lan elkartuko kooperatibak, bestelako proiektu autogestionatuak...

Unitate bakoitzak bere bideragarritasunerako elementuak (bitartekoen kontsumoa, zerbitzuak eskuratzea, komunikazioa, sostengu-sarea, proiektuaren zabalpena...) KAEn parte izatearen bitartez edo harekin partekatuta eskuratzeko aukera izango luke. Horrek, PKAA nodo bakoitza sostengatzeaz gain, ekosistema osoari erresilientzia emango lioke. Lakari Kooperatibari dagokion ekosistema-ingurunea (2. irudia) azaltzen da, adibide gisa.

Eta, balio-kate osoko PKAAek (3. irudia) osatutako sare banatuaz gain⁴, haien beharrak asetzeko ekoizpena eta lurraldeko baliabideak aktiba daitezke. Hau da, PKAA hauek beren beharrak asetzeko, KAE ekosistema honetako balio-kate osoan zehar erabilitako ondasun eta zerbitzuak eskaintzen dituzten nodo instrumentalak ere barne hartuko lituzkete: beste sektoreetako Proiektu Kolektibo Autogestionatuak.



3 Proiektu Kolektibo Autogestionatu Agroekologikoak
 4 Sare banatuak Interneteko terminologiatik hartutako kontzeptua dira; nodoak aldebatasunez eta puntu batekin baino gehiagorekin konektatzen dira sare honetan, nodo zentral edo kolektiborik gabe; nodo bat eroriz gero sarearen biziraupena bermatzen denez, sare erresilienteenak dira.

1. irudia ~ Lakari Kooperatibiko proiektu autogestionatu agroekologikoaren ekosistema.
 2. irudia ~ Elikaduraren balio-katea.
 3. irudia ~ Proiektu sozial eraldatzaileen ekosistemaren sare banatua.

Ondorioak

Kooperatibismo Agroekologikoaren Ekosistemako proiektuak praktika sozioekonomiko eraldatzaileak eraikitzen ari dira autogestio, ekintza kolektibo, lankidetzeta eta jasangarritasunaren balioak oinarri hartuta.

Merkaturatze Zirkuitu Laburreko egitasmo bakoitza momentu eta errealitate ezberdinetan egon arren, kooperatibismo agroekologikoa ikusarazi, partekatu eta interkooperazio-praktiken bidez sortzen den ezagutza bizi garen errealitatea eraldatzeko erabiltzea sustatu nahi da.

Erronkak

Epe motzera begira, saretze hau indartu eta ekosistema hori errealitate bihurtzea litzateke lehentasun. Baina epe ertain-luzera begira, eskala-aldaketa baterako oinarriak ezartzeko baliatu nahi da ekoizpen eta banaketaren arloan.

Agroekologiaren erronka nagusia esperientzia agroekologikoen eskala handitzea da. Horretarako, interesgarria litzateke, lan autogestionatua egiteaz gain, KAE-ek administrazio publikoan aldaketa eragiteko lan politikoa ere egitea. Izan ere, ekoizpen eta banaketa handitzea ez da nahikoa, elikaduraren, edo hobeto esanda, elikadura agroekologikoaren kontsumoaren politizazioa ez bada egiten gizarte-mugimenduetatik abiatuta.

///

Bibliografia

González, M.; López, D. eta Guzmán, G. (2017): «Politizando el consumo alimentario: estrategias para avanzar en la transición agroecológica», *Redes*, bol.: 22, zk.: 2, 31-55.

Homs, P.; Martín Mayor, A. eta Florens-Pons, G. (2017): «El Canvi d'Escala: un revulsiu per a la sostenibilitat del cooperativisme agroecològic?», *Cooperació Catalana*, 415, 16-19.